

CIC biomaGUNEk Biriketako Hipertentsioaren Aurkako Fundazioaren XIV. urteurrenean parte hartzen du

Jesús Ruiz Cabello Ikerbasque irakaslea CIC biomaGUNEko [Biomarkatzaile molekular eta funtzionalak](#) taldeko ikertzaile nagusia da, eta CIBERESeko ikertzailea. Biriketako gaixotasun baskularren azterketan aditua da, eta [Biriketako Hipertentsioaren Aurkako Fundazioaren XIV.](#) urteurrena ospatzeko ekitaldietan parte hartzen ari da. Fundazioak [programa](#) zabal bat antolatu du datorren azaroaren 24rako. Besteak beste, biriketako hipertentsio arterialari (BHA) aurre egiteko egunero lan egiten duten profesionalak izango dira gonbidatuak. Gaixotasun arraroa da, larria, progresiboa eta kronikoa, eta odola bihotzetik biriketara (biriketako arterietara) eramaten duten odol-hodiei eragiten dien presio arterial handia du ezaugarri. Ruiz Cabello irakasleak, Stanfordeko Unibertsitateko, Madrileko La Pazeko Unibertsitate Ospitaleko eta Unibertsitate Konplutentseko ikertzaile banarekin batera, BHAREN arloko ikerketa genetikoari buruzko mahai zientifiko batean hartuko du parte.

Biriketako Hipertentsioaren Aurkako Fundazioak dirua biltzen du urtero Emphaty proiekturako. Elkarlaneko ikerketak egiten dira proiektu horretan, markatzaile biologikoak identifikatzeko, helburu bikoitz honekin: batetik, BHAREN diagnostiko goiztiarra erraztea, eta, bestetik, gaixotasuna sendatzera eramango duten bide berriak aurkitzea.

BHA duten pertsonetan, biriketako arteriak estutu egiten dira, eta bihotzak lan gehiago egin behar du odola ponpatzeko. Horren ondorioz, gaitz hori duten pertsonak oso nekatuta sentitzen dira, zorabiatuta, eta arnasa hartzeko zailtasunak dituzte edo beste sintoma batzuk. Denborarekin, bihotza ahuldu egiten da, eta bihotz-gutxiegitasuna eragin dezake. Horrek desordena hemodinamikoa eragiten du birika-hodietako alterazio primario baten ondorioz, hori arrazoi bakarra ez bada ere, edo, adinez nagusiak diren pazienteetan ohikoagoa den bezala, biriketako edo jatorria ezker-bentrikuluaren disfuntzioan duten beste gaixotasun batzuen konplikazio gisa garatzen da. Zorionez, gaitz horren biopatologiaren ezagutzan berriki egin diren aurrerapenen ondorioz botika berriak garatu dira, eta onura handiak ekarri dituzte, bai biziraupenari dagokionez, bai pazientearen ongizateari dagokionez.

Hala ere, irtenbide onena aurkitzetik urrun gaude; izan ere, paziente asko nahiko gazteak dira, eta, diagnostiko berrien kasuan, biziraupena, diagnostikotik 3 urtera, % 65era baino ez da iristen gaur egun, eta badituzte beste komorbiditate elkartu batzuk. Oraindik bide luzea dugu aurretik, sendabidea eta gaitz horren diagnostikoa lortu baino lehen. Beraz, premia larria dago ikuspegi terapeutiko eta diagnostiko-tresna berriak aurkitzeko eta, hala, gaixotasuna lehenago detektatu, haren progresioa zehaztasunez ikusatu eta modu eraginkorragoan tratatzeko.

Ruiz Cabello irakasleak zuzentzen duen CIC biomaGUNEko taldearen interesgune nagusia biriketako gaixotasun baskularrak ikuspegi desberdinak erabiliz aztertzea da, askotariko diagnostiko-tresnak garatzea eta haien garapena ingurumen-parametro edo -ohituen arabera egiaztatzea (jarduera fisikoa, dieta, etab.). Biriketako zirkulazioaren eta eskuineko bentrikuluaren azterketa eremu gero eta interesgarriagoa da, eta gero eta garrantzi handiagoa du. Alde horretatik, ikerketa-taldearen eginkizuna irudi molekularreko teknikan —PET tomografia eta fluxuko erresonantzia magnetikoa— oinarritutako biomarkatzaileak aurkitzea da.

Irudi-teknika horien bidez lortutako informazio estrukturala, molekularra eta funtzionala konbinatuz garatuko dira biomarkatzaile horiek. Teknika omikoen bidez —proteomika eta metabolomika— lortutako gaixotasunen mekanismoen datu molekularrak eta irudi-datuak korrelazioan jartzen ari dira, fenotipoak eta tratamenduarekiko erantzun desberdinak

ulertzeko. Ikuspegi horrek aukera berriak irekitzen ditu era horretako gaixotasun konplexuak aztertzeko. Biomarkatzaile horiekin lortu nahi den azken helburua da aplikazio klinikoa izatea biriketako zirkulazioari erasaten dioten gaixotasunak dituzten pazienteen diagnostikoa eta jarraipena egiteko eta tratamenduari ematen zaion erantzuna ebaluatzeko.